# Informazioa eta dokumentazioa

**Zangak eta obra bitarteko lagungarriak jartzeko baimena**
Autorizacion de zanjas y medios auxiliares de obra

## INFORMAZIOA
## INFORMACIÓN

### INPRIMAKIA NOLA BETE AZALTZEKO OHARRAK
### NOTAS ACLARATORIAS PARA CUMPLIMENTAR EL IMPRESO

(1) Eskatutako baimenari lotutako kontsulta eta komunikazio guztiak enpresa gauzatzailearen bitartez egingo dira.

Erakunde edo pertsona eskatzailea eta lanak gauzatu beharreko enpresa ez badira bat, eskatzaileak enpresa gauzatzaileari lotuta izaten den edozein aldaketaren berri eman beharko dio Udalari.

Enpresa gauzatzailea aldatzeak baimena ezeztatzea ekar dezake.

(2) Honakoak jartzeko baino ez da nahitaezkoa: aldamio handiak, karga-jasogailuak, garabi-dorreak, mastadun plataforma jasotzaileak, portiko metalikoak, fatxada-egonkorgailuak eta zanga handiak.

(3) Honakoak jotzen dira aldamio txikitzat: altueran 6 metro baino gutxiago dituzte eta kalean bermatuta daude (markesinak ere kontuan hartzen dira).

Beste guztiak aldamio handitzat jotzen dira.

(4) Honakoak jotzen dira zanga txikitzat: kata eta hartuneak 1,5 m baino gutxiago badute sakontasunean.
Bidea ireki edo zoladura altxatzeko gainerako obra guztiak zanga handitzat jotzen dira.

(5) Espaloitik pasatzeko baimena edo errepidea (zirkulazio erreia edo aparkalekua) obra eginkizunetarako (zamaketa lanetarako, trafikoa bideratzeko...) gordetzeko beharrik izanez gero, haiei lotutako kokapen, neurri, iraupen eta abarreko zehaztasunak eman behar dira proiektuaren barruan.

(6) Edukiontziak jartzeko baimena eskatzen bada baino ez bete. Zenbat edukiontzi jarriko diren eta 2m$^3$ edo de 5m$^3$-koak diren adierazi behar da.

(7) Bete ezazu aparkaleku-alde batean edukiontzia jarri nahi izanez gero.

(8) **Helbideratze orokorraren onurak**

Borondatez ordaintzeko azkeneko egunean kargatzea helbideratuta diren ordainagiriak kontuan.

Lehentasunezko interesa aplikatzea epekako eta zatikako ordainketetan, eta, batzuetan, baita bermerik jarri beharrik gabe ere.

Kobratzea etetea, abalik jarri beharrik gabe, berraztertze errekurtsoa sartuz gero, harik eta errekurtsoa ebatzi arte.

(1) Las consultas respecto a la autorización solicitada se realizará a través de la empresa ejecutora.

Si la persona solicitante es una entidad o persona diferente a la empresa ejecutora de los trabajos, deberá dar cuenta al Ayuntamiento de cualquier cambio que pueda realizarse respecto a la empresa ejecutora.

El cambio de empresa ejecutora puede dar lugar a la invalidación de la autorización.

(2) Obligatorio solo para andamios grandes, montacargas, grúas torre, elevadoras de mástil, pórticos metálicos, estabilizadores de fachada y zanjas grandes.

(3) Se consideran andamios pequeños los de menos de 6 m. de altura apoyados en calle (incluye marquesinas).

Todos las demás se consideran andamios grandes.

(4) Se consideran zanjas pequeñas las catas y acometidas de menos de 1,5 m de profundidad. Todas las demás aperturas de suelo o pavimento se consideran zanjas grandes.

(5) En caso de solicitar vado o el uso de calzada, bien en carril de circulación o bien en aparcamiento, (para establecer una zona de carga y descarga o para realizar un desvio de circulación) se deberán especificar en el proyecto los detalles de ubicación, medidas y período de lo solicitado.

(6) Rellenar solo si se solicitan contenedores, indicando número de contenedores y si estos son de 2m$^3$ o de 5m$^3$..

(7) Rellenar si se solicita contenedor en zona de aparcamiento.

(8) **Ventajas de la domiciliación general**

Los recibos domiciliados se cargarán el último día del período voluntario en la cuenta bancaria indicada.

Aplicación del interés preferente en los aplazamientos y fraccionamientos de pago y, en determinados casos, sin necesidad de aportar garantía alguna.

Suspensión del procedimiento de cobro sin necesidad de avalar cuando se interponga recurso de reposición y hasta la resolución del mismo.

12532n II

## BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA
## OTRA INFORMACIÓN DE INTERÉS

Unitate izapidegileak beretzat gordetzen du edozein motatako dokumentazio osagarria eskatzeko eskubidea, izapidea behar bezala kudeatu ahal izateko.

La unidad tramitadora se reserva la posibilidad de recabar cualquier tipo de documentación complementaria para la correcta gestión del trámite.

Istripuak prebenitu eta saihesteko obretan eta bitarteko lagungarrietan leku ageriko batean jartzen diren inskripzio eta kartel guztietan, euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko dira, lehentasuna emanez euskarari.

En todas las inscripciones y carteles que, con objeto de prevenir y evitar accidentes, se dispongan en lugar visible en las obras y los medios auxiliares se deberán utilizar el euskara o el euskara y el castellano, dando prioridad al euskara.

Oinezkoen aldeetan sartzen diren ibilgailu astunek ezin dute, oro har, 7.500 kg-ko baimendutako gehieneko masa teknikoa gainditu.

El acceso de vehículos pesados a zonas peatonales está limitado, como norma general, a 7.500 kg de MMTA (Masa Máxima Técnica Autorizada).

## EDUKIONTZIAK
## CONTENEDORES

Edukiontziak, ahal dela, arautu gabeko aparkaleku-alde batean jarriko dira eta, gehienez, 5 $m^3$-ko bolumena izango dute.

Oro har, oinezkoen aldeetan jartzen diren edukiontziak 2$m^3$–koak izango dira.

Alde berezietan, 1$m^3$-ko zakuak erabili ahal izango dira.

Los contenedores se instalarán preferentemente en zona de aparcamiento libre y serán de 5 $m^3$ máximo.

Como norma general, los contenedores a ubicar en zonas peatonales serán de 2$m^3$.

En zonas especiales se podrá hacer uso de sacas de 1$m^3$.

Aparkaleku-alde batean lehen aldiz jartzeko, eskatzaileak bi aukera izango ditu: bere baliabideekin bermatzea espazio libre bat duela baimendutako kokalekuan edo, bestela, Udalari eskatzea aparkaleku-aldea erreserbatzeko. Kasu honetan, eskatzaileak 24 ordu lehenago seinaleztatu beharko du okupatu beharreko aldea, bai eta Udaltzaingoari jakinarazi ere halaxe egin duela.

Para su inicial ubicación en aparcamiento la persona solicitante deberá optar entre valerse de sus medios para asegurar un espacio libre en la ubicación autorizada o solicitar que el Ayuntamiento preste el servicio de reserva de aparcamiento, en cuyo caso la persona solicitante deberá señalizar con 24 h de antelación la zona a ocupar y dar aviso a Guardia Municipal de haberlo hecho.

Edukiontziak ezin izango dira bide publikoan egon ez asteburuetan ez jaiegunetan.
Jaiegunen ondoren aparkalekua okupatzen jarraitzeko, edukiontzia kendu bezain laster, hesiz seinaleztatu beharko da hutsik utzitako tokia, eta Udaltzaingoa jakinaren gainean jarri.

Edukiontziak utzitako espazio hutsa ezin izango da mugatu, ez obra elementuekin, ez eta hesia ez den beste ezerekin ere.

Los contenedores no podrán permanecer en la vía pública los fines de semana y festivos.
Para continuar con la ocupación de la plaza de aparcamiento tras el festivo, se deberá señalizar con vallas el espacio vacío nada más retirar el contenedor y dar cuenta a la Guardia Municipal de haberlo hecho.

No se podrá acotar el espacio vacío del contenedor con elementos de obra u objetos diferentes a las vallas.

## HESIAK
## VALLADOS

Merkataritzako lokaletan esku hartzeko, fatxadan jartzen diren itxiera-hesi sinpleek nahikoa dute berehala izapidetzea, baldin eta itxiera ez bada besteren baten fatxadan sartzen.

Los vallados sencillos de cierre en fachada para actuaciones en locales comerciales podrán ser objeto de tramitación inmediata, siempre que el cierre no invada fachada ajena.

## ALDAMIO TXIKIAK ETA ZANGA TXIKIAK
## ANDAMIOS PEQUEÑOS Y ZANJAS PEQUEÑAS

Ibilgailuen trafikoaren gaineko erasana konplexua delako edo beste edozerengatik, baliteke, egoera berezietan, aldamio txiki bat edo zanga txiki bat handitzat jo behar izatea, bai dokumentazioa eskatzeko orduan bai izapideak egitekoan.

La complejidad asociada a la afección al tráfico rodado u otra circunstancia puede, en situaciones especiales, conllevar que un andamio pequeño y una zanja pequeña puedan tener que ser tratados como grandes tanto en la exigencia de documentación como en la tramitación.

## BESTELAKOAK
## OTROS

Fatxada edo teilatu ertzetako lanak ibilgailu plataformadunekin edo zintzilik.

Actuaciones en fachada mediante plataformas y semejantes y trabajos verticales.

# DOKUMENTAZIOA
# DOCUMENTACIÓN

## OBRA NAIZ ELEMENTU MOTA BAKOITZERAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
## DOCUMENTACIÓN A APORTAR PARA CADA TIPO DE OBRA O ELEMENTO

### Edukiontziak

- Azalpen krokisa kokapenarekin (behar bada).

### Hesiak

- Oinplanoa eta ebakidura zedarrituak dituen azalpen krokisa, kokapen eta guzti. Honako hauek ere azalduko dira bertan: dauden elementuak, atearen posizioa, oinezkoen pasabidearen zabalera eta hesiaren eredu sekzioa.
- Trafikoari egingo zaizkion erasanei buruzko txostena (behar bada).
- Ibilgailuak sartzeko plana eta espazio publikoaren okupazioa muntatze fasean dagoen materialarekin.

### Aldamio txikiak

- Oinplanoa, altxaera eta espaloiarekiko eta eraikinarekiko ebakidura zedarrituak dituen azalpen krokisa, kokapen eta guzti, eta okupatu beharreko fatxadaren argazkiak.
- Trafikoari egingo zaizkion erasanei buruzko txostena (behar bada).
- Ibilgailuak sartzeko plana eta espazio publikoaren okupazioa muntatze fasean dagoen materialarekin.

### Contenedores

- Croquis explicativo con ubicación (en caso necesario).

### Vallados

- Croquis explicativo con ubicación, acotado en planta y sección con indicación de elementos existentes, posición de la puerta, anchura del paso peatonal y sección tipo del vallado.
- Informe de afecciones al tráfico (en caso necesario).
- Plan de acceso de vehículos y ocupación de espacio público con material en fase de montaje.

### Andamios pequeños

- Croquis explicativo con ubicación, acotado en planta, alzado y sección con respecto a acera y edificio y fotografías de la fachada a ocupar.
- Informe de afecciones al tráfico (en caso necesario).
- Plan de acceso de vehículos y ocupación de espacio público con material en fase de montaje.

## Mortero-siloak

- Siloaren eta hura inguratzen duen hesiaren azalpen krokisa, kokapen eta guzti. Honako hauek ere azalduko dira bertan: dauden elementuak, atearen posizioa, oinezkoen pasabidearen zabalera eta zoladuraren pisua eta neurriak.
- Trafikoari egingo zaizkion erasanei buruzko txostena (behar bada).
- Ibilgailuak sartzeko plana eta espazio publikoaren okupazioa muntatze fasean dagoen materialarekin (behar bada).

## Zanga txikiak

- Azalpen krokisa, kokapen eta guzti. Elementu hauek zehaztuko dira: zanga mota, berritu beharreko zerbitzua, kokapena, neurriak (sakonera) eta gainerako ezaugarriak; horretaz gain, esku-hartze aldearen argazkiak, zoladuraren egoeraren berri ematen dutenak.
- Trafikoari egingo zaizkion erasanei buruzko txostena (behar bada).

## Aldamio handiak / Karga-jasogailuak / Garabi-dorreak / Mastadun plataforma jasotzaileak / Portiko metalikoak / Fatxada-egonkorgailuak

- Proiektua, teknikari eskudunek sinatua, eta honako edukiak jasotzen dituena:
  - Memoria deskribatzailea, okupatu beharreko fatxadaren argazkiak jasotzen dituena
  - Planoak
  - Kalkuluen memoria (eraikin singularren kasuan edo Udalak hala erabakitzen duenean)
  - Aurrekontua
  - Trafikoari egingo zaizkien erasanak
  - Seinaleztapena eta babesa
- Ibilgailuak sartzeko plana eta espazio publikoaren okupazioa muntatze fasean dagoen materialarekin.
- Aldamioak jarriko dituen enpresaren datuak. 24 orduko telefono-zerbitzua izan beharko du.
- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza edo erantzukizuneko adierazpena.

## Zanga handiak

- Proiektua, teknikari eskudun batek sinatua. Honako edukiak izan beharko ditu:
  - Memoria deskribatzailea, erasan beharreko zoladuraren argazkiak

## Silos de mortero

- Croquis explicativo con ubicación del silo y del vallado que lo circunscribe con indicacion de elementos existentes, posición de la puerta, anchura del paso peatonal; peso y dimensiones del estado del pavimento.
- Informe de afecciones al tráfico (en caso necesario).
- Plan de acceso de vehículos y ocupación de espacio público con material en fase de montaje (en caso necesario).

## Zanjas pequeñas

- Croquis explicativo con ubicación, especificación de tipo de zanja, servicio a renovar, dimensiones (profundidad) y demás características y fotografías de la zona de actuación que dan cuenta del estado del pavimento.
- Informe de afecciones a tráfico(en caso necesario).

## Andamios grandes / Montacargas / Grúas torre / Elevadoras Mástil / Pórticos metálicos / Estabilizadores de fachada

- Proyecto, firmado por personal técnico competente, con los siguientes contenidos:
  - Memoria descriptiva con fotografías de la fachada a ocupar
  - Planos
  - Memoria de cálculo (edificios singulares o cuando lo determine el Ayuntamiento)
  - Presupuesto
  - Afecciones a tráfico
  - Señalización y protección
- Plan de acceso de vehículos y ocupación de espacio público con material en fase de montaje.
- Datos de la empresa instaladora de la estructura andamiada con teléfono 24 h.
- Póliza de seguro de responsabilidad civil o declaración responsable.

## Zanjas grandes

- Proyecto, firmado por técnico competente, con los siguientes contenidos:
  - Memoria descriptiva con fotografías del pavimento a afectar.

jasotzen dituena.

- Planoak:
  - Zangaren oinplanoaren marrazkia eta sekzio-eredua.
  - Erasandako zerbitzuen planoa (halakorik ez badago, hala dioen adierazpena).
  - Obrak okupatzen duen guztizko eremuaren planoa (bitarteko lagungarriak ere azalduta).
- Bitarteko bereziak (eskoratzeak,...), beharrezkoak badira
- Aurrekontua
- Trafikoari egingo zaizkien erasanak
- Seinaleztapena eta babesa

- Zerbitzu-sarearen jabe den enpresaren egiaztagiria, halakorik izanez gero.
- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza edo erantzukizuneko adierazpena.

- Planos:
  - Dibujo de la zanja en planta y sección tipo
  - Plano de servicios afectados (caso de que no los hubiera, declaración en este sentido).
  - Plano ocupación total de obra (incluyendo medios auxiliares)
- Medios especiales (entibación,..), si procede
- Presupuesto
- Afecciones a tráfico
- Señalización y protección

- Certificado de la empresa propietaria de la red de servicios, en su caso.
- Póliza de seguro de responsabilidad civil o declaración responsable.

## Publizitatea aldamioetan

Aldamioetan publizitate oihal bat jartzeko honakoak behar dira aurkeztu:

- Proiektu teknikoa, beharrezko lotura bitartekoen berri (egitura berria, lotura guneak...) ematen duena eta muntaketa eta jasotze baldintzak eta egunak biltzen dituena.
- Argiteria proiektua, halakorik izatekotan
- Aldamiozalearen egiaztagiria (erantsia doa eredua) publizitate elementuak hartzeko gaitasuna, haiek mantentzeaz eta haien aseguruaz berri ematen duena
- Aldamioaren irudia publizitate edukiarekin

Aldamioaren baimena etxe jabeen izenean ez baizik eta eraikuntza baten izenean baldin badago, etxe jabeen baimen agiria aurkeztu beharko da.

Bestetik, jakinarazten da publizitateak hizkuntzei buruzko Udal Araudia eta publizitatean arau etikoak (berdintasuna, sexukeria gabetasuna, indarkeria gabetasuna...) bete beharko duela.

## Publicidad en andamios

Para la colocación de lonas publicitarias en andamios se precisa presentar lo siguiente:

- Proyecto técnico con datos de las medidas de sustentación (anclajes...) necesarias, y fechas y descripción de las condiciones de montaje y desmontaje.
- Proyecto de iluminación, en su caso
- Certificado del andamista dando cuenta de la capacidad del andamio para asumir los elementos de publicidad, de su mantenimiento y de su seguro.
- Fotomontaje del elemento publicitario

En caso de que la autorización del andamio esté a nombre de una empresa, se deberá presentar autorización de la comunidad de propietarios.

Las lonas publicitarias deberán cumplir las Normas Municipales sobre el uso del euskera y las normas éticas de publicidad (igualdad, publicidad no sexista, violencia...).

## Eremu pribatuko obra handiak

Eremu pribatuan egitekoak diren eta sarbide baimena behar duten lanetan, horiek bide publikoan izan dezaketen eraginarekiko behar diren bermean izateko, aurkeztu behar da:

- lanek bide publikoan fase bakoitzean (edo gutxienez lehen fasean) eragin ditzaketen arriskuen azterketa eta
- bertan zehaztu zein neurri hartuko den arriskuok saihesteko.

## Obras mayores en espacio privado

En las obras a realizar dentro de parcela privada que requieren autorización de acceso, a fin de tener las garantías necesarias sobre su influencia a la vía pública, se debe presentar:

- un estudio de evaluación de riesgos hacia la vía pública para cada fase de obra (o, al menos, para la primera fase)y
- especificar las medidas que se van a adoptar para hacerles frente.

Azterketak, obrako arduradun teknikoak sinatuta egongo denak, obrako baliabide lagungarrien

- plantako plano kotatu bat izango du fase bakoitzeko eta espresuki adierazi beharko du aurreikusitako neurriak hartuta bermatzen dela segurtasuna bai bide publikoarena eta bai bertan ibili daitezkeena.

El estudio, firmado por un/a técnico responsable de la obra, debe recoger, por cada fase de obra:

- un plano acotado en planta de las ocupaciones de medios auxiliares de obra y hacer constar que con estas medidas previstas se garantiza la seguridad del viandante y de la vía pública en general.